



Altza ya disfruta de su nuevo polideportivo

Las nuevas instalaciones deportivas han tenido una gran acogida, y más de 6.000 personas han utilizado ya este nuevo equipamiento durante los primeros días. Las obras, aún sin concluir, contemplan la próxima urbanización del entorno y la creación de una zona de disfrute al aire libre.

El polideportivo tiene una superficie de 10.500 m² en tres plantas, con piscinas interiores, gimnasio con maquinaria de última generación, vestuarios, cancha polideportiva y cafetería, y su presupuesto ha alcanzado los 16,5 millones de euros. Para verano estarán disponibles las piscinas exteriores y el solarium, completando una equipación básica para la zona Este de la ciudad.

KIROLDEGI BERRIA ALTZATARREN GOZAMENERAKO

Kiroldegiak harrera bikaina izan du herritarren artean, eta 6.000 pertsona baino gehiagok erabili dute Altzako kiroldegi berria lehenengo egunetan. Oraindik amaitu gabeko lanen artean kanpo urbanizazioa eta aisialdirako kanpoaldeko gune bat egitea aurreikusten da.

Kiroldegiak 10.500 m²-ko azalera dauka, hiru solairutan banatuta, eta barruko igerilekua, gimnasioa, aldagelak, kirol anitzeko kantxa eta kafetegia ditu. Aurrekontuari dago-kionez, 16,5 milioi euroko inbertsioa behar izan du, lurren kutsadurak sortutako lanak kontuan hartuz. Udarako prest izango dira kanpoaldeko igerilekuak eta solariuma.

Altzako kiroldegi berriak harrera ezin hobea izan du

Irekierarako antolatu ziren jardueretan 1.200 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten. Instalazio eta ekipamenduek herritarren harrera ona eta onespena jaso dute.

Altzako kiroldegi berriak eskaintzen dituen berritasunen artean, nabarmentzekoak dira sarraila elektronikoa dituzten leihatilak, markagailu digitalak, ohiko ikastaroen osagarri birtual gisa eskaintzeko aukera emango duten pantailak, edota Bluetooth teknologia bidezko makinak, erabiltzaileek entrenamenduak erregistratu ahal izateko.

Igerilekuan ere berrikuntzak jasotzen ditu kiroldegi berriak. Waterpolo Donostia klubaren bidez eskainiko den jardueretako bat izango da waterpolo. Ekipamendu berriak gain, bereizteko gortina bat jarri da, waterpolo eta hastapeneko igerilekua aldi berean erabiltzeko.

Gimnasioak 400 m²-ko dimentsioa du eta beheko solairuan dago, barruko eta kanpoko igerilekuetara begira. Hainbat eremu ditu, eremu funtzionala, eremu kardiobaskularra, muskulazio-gunea eta pisu libreko eremua, besteak beste. Makinei dagokionez, renting-aren formula erabiliko da, bost urtean behin guztia berrituz.

Instalazio berriak hiru jarduera-areto handi ere baditu, horietako bat indoor ziklorako ekipatua, eta horietara eraman dira orain arte Casa Nao-ko behin-behineko gimnasioan ematen ari ziren ikastaroak.

Laster ikusiko dugu kanpoko urbanizazio obra amaitua, igerilekua eta solariuma barne. Kanpoko urbanizazioa maiatzerako prest egotea aurreikusten da eta kanpoko igerilekuak ere udarako prest egongo dira.



Casa Nao gimnasioak irekita jarraituko du

Kiroldegi berriko lanak amaitu bitartean behin-behineko irtenbide gisa sortu zen instalazio honek irekita jarraituko du. Donostia Kirolak eta Judo Club San Sebastianek, Anoetako Arte Martzialen Zentroak dagoeneko kudeatzen duenak, akordioa lortu dute.

Beraz, Nao Etxeko gimnasioa erabiltzen jarraitu ahal izango dute Kirol Txarteleko abonatuak. Gainera, Judo Club San Sebastianek arte martzialekin lotutako jardueren eskaintza egingo du, Altzako Kiroldegian egiten diren jardueren osagarri. Besteak beste, judo, kick boxing, aereo box eta Brazilian Jiu-jitsu klaseak egongo dira.

Bizilagunek harrera bikaina egin diote

Donostia Kirolak balantze positiboa egin du kiroldegi berriaren lehenengo astean. Guztira, 6.000 pertsona



baino gehiagok erabili zuten instalazioa lehenengo egunetan. Erabiltzaile horien %70-a Altzako bizilagunak izan ziren.

Irekieraren baitan antolatu ziren jarduerak ere arrakasta izan zuten, 1.200 pertsona baino gehiagok parte hartu baitzuten. Aipatzekoak dira, besteak beste, apirilaren 23an, larunbatean, 120 parte-hartzaile baino gehiago izan zituen Zumbato herrikoia edo egun horretan bertan igerilekuan egindako haur jolasak.


Apirilaren 21etik 23ra Txernobil Elkartearen aldeko erronka solidario bat egin zen eskualde horretako haurrei laguntzeko kanpainarako dirua biltzeko helburuarekin. Erronka Altza eta Txernobil arteko 6.344km egin eta ziklo-indoor aretoko bizikletetan pedalei eraginez itzultzea zen. Erronka larunbat eguerdian bukatu zen, 500 parte hartzaile baino gehiagorekin, 5.440km eginda eta 2.905 € bilduta.

Ba al zenekien? | Sabías que...

Altzako kirol anitzetarako pistak 2.032 m² hartzen ditu bere baitan, eta lau pistetan bana daitekeen bakarra da hirian. Kiroldegian egin daitezkeen lehiaketak: Igeriketa, Waterpolo, saskibaloia, areto futbola, eskubaloia eta gimnasia erritmikoa dira.

Antes del cierre, el antiguo polideportivo de Altza contaba con 10.000 usuarios mensuales. **En los primeros días de la nueva instalación deportiva se han contabilizado más de 6.000 usuarios y usuarias.**

Kiroldegia itxi zenean obrak egiteko Altzan 4.656 abonatu zeuden, eta **gaur egun 3.956 daude (abonatu guztien %10,32)**



GRAN ACOGIDA AL NUEVO POLIDEPORTIVO DE ALTZA

El nuevo espacio deportivo incorpora novedades como taquillas con cerraduras electrónicas, videomarcadores digitales, pantallas como complemento virtual a los cursos habituales y máquinas de última generación con tecnología Bluetooth para conectarse con dispositivos externos y que las personas usuarias puedan registrar sus entrenamientos.

También veremos pronto finalizada la obra de urbanización del polideportivo, incluida la piscina y el solárium. Se prevé que la urbanización de la zona esté lista en mayo y las piscinas exteriores en verano.

Más de 6.000 personas han utilizado el polideportivo durante los primeros días desde su apertura y más de 1.200 personas participaron en las distintas actividades organizadas por Donostia Kirola y los clubes deportivos para la apertura de la instalación.

Kirol talde eta erabiltzaileak Altzako polikiroldegi berriko instalazioak erabiltzen hasi dira. Zer nolako harrera egin diote auzotarrek kiroldegi berriari? Zer beritasun ekarri dituzte instalakuntza berriek kirolarien egunerokoan?

Waterpolo Donostia taldeko, Donostia Gimnasia Erritmikoko eta gimnasioko kirolari eta erabiltzaileekin hitz egin dugu bere iritzia jakiteko.

Gorka Arriola, 26 urte.
WATERPOLO DONOSTIAKO KIROLARIA

“Altza necesitaba un polideportivo nuevo y la espera ha merecido la pena. Han hecho un gran trabajo en lo que respecta a la piscina y han

hecho una piscina muy adecuada para practicar waterpolo. Esto nos va a facilitar los entrenamientos, tanto por cercanía, horarios, uso de material”.

Unai Arrieta, 25 urte.
DONOSTIA GIMNASIA ERRITMIKOKO KIROLARIA

“Hamar urte daramat Altzan entrenatzen eta berrikuntza hau behar genuela uste dut. Gure lekua nahiko zaharkituta zegoen eta espazio berriak asko erraztuko dizkigu entrenamenduak.

Kiroldegi berria oso ondo gelditu da. Diseinuari eta espazioaren erabilerari dagokionez kirola praktikatzeko leku atsegina da”.

Mabel Rena, 53 años.
USUARIA DEL POLIDEPORTIVO.

“Con este polideportivo tanto jóvenes como mayores vemos satisfechas nuestras necesidades, sobre todo porque en Altza y alrededores vive mucha gente y a partir de ahora no tendremos que desplazarnos a otros barrios a hacer deporte.

Soy usuaria habitual del gimnasio y creo que las máquinas son modernas y buenas. En cuanto a las máquinas de cardio, hay mucha variedad”.

ERAKUSLEHIOA Iritziak | Opiniones...

LEHEN MAILAKO KIROLDEGIA MEREZI DU ALTZAK

Urte askoan arazo eta zailtasun mordo bat izan ondoren, dagoeneko eginda eta jardun bete-betean dugu Altzako udal-kiroldegia. Denen ahalegina eskertzeko garaia da orain; eta izandako pazientzia eskertzeko ere bai, urte asko atzeratu da guztia eta.

Merezi du Altzak horrelako instalazioa. Hirian den kiroldegirik modernoena da, azken belaunaldiko aurrerapen teknologikoak dituen. Bi igerileku ditu barruan, igeriketa eta waterpolo egiteko. Kirol anitzeko pista bat, saskibaloia, eskubaloia, gimnasia erritmikoa, areto-futbol eta beste kirol batzuetako lehiaketak egiteko modukoa. Eta bizikleta gunea (azken belaunaldiko bizikletekin), muskulazio-aretoa, bilera-aretoa eta abar.

Udarako prest izango da kanpoko igerilekua eta solariuma ere. Kiroldegiaren prestazioak eta erakargarritasuna biderkatu eta aisialdirako gune ederra eskainiko die horrek auzotarrei. Gainera, Casanaoko gimnasioak ere irekita jarraituko du auzoko kirol-beharrei zerbitzua emanez. Udalak bazekien ondo zenbat behar zuen auzoak ekipamendu hau. Horregatik, oso gogor aritu gara lege gintzal-di honetan bukatu ahal izateko. Eginda dago, eta espero dugu altzatar guztiek, kirol-klubek eta hurbiltzen diren guztiek gozatu ahal izatea orain. Zorionak!

ALTZA SE MERECE UN POLIDEPORTIVO DE PRIMERA

Después de años de problemas y dificultades, el Polideportivo municipal de Altza es ya una realidad a pleno rendimiento. Es momento de agradecer el esfuerzo de todas y todos, así como la paciencia por los años de retraso.

Altza se merece una instalación de estas características. Es el polideportivo más moderno de la ciudad, con los últimos avances en tecnología de última generación. Dispone de dos piscinas interiores que permitirán la práctica tanto de la natación como del waterpolo. Una pista polideportiva en la que se va a poder disputar el basket, balonmano, gimnasia rítmica, fútbol sala.... Una zona de ciclo indoor con bicicletas de última generación, sala de musculación, sala de reuniones....

De cara al verano, estará finalizada la piscina exterior con zona de solarium, que ofrecerá al barrio un espacio de diversión y esparcimiento fantástico y que va a multiplicar las prestaciones y el atractivo del polideportivo. Además, el gimnasio de Casa Nao seguirá dando servicio a las necesidades deportivas del barrio.

Desde el Ayuntamiento hemos sido plenamente conscientes de la necesidad que este equipamiento tiene para el barrio. Por ello, hemos sudado tinta para poder acabarlo en el marco de esta legislatura. Hoy es una realidad que esperamos disfrutar todos y todas las altzataras, sus clubes deportivos y todo aquel que se acerque a conocerlo. Zorionak!



Martín Ibabe Eceiza
Ekialdeko Barrutiko Batzordeko presidentea eta Kirolerako zinegotzia
Presidente de la Junta del Distrito Este y concejal de Deportes

**Intxaurren****INTXAURKIDE, TOKIKO MERKATARITZA TXIKIA SUSTATZEKO PLANA GARATU DUTE INTXAURRONDON**

INTXAURKIDE, Intxaurren Zaharreko merkataritza txikia bultzatu, indartu eta sustatzeko plana da.

Intxaurren Zaharreko Bizilagun Elkartearen (IZBE) ustez, merkataritza txikiak berebiziko garrantzia du auzo baten sare soziala indartsu bat izateko. Auzo bizi bat izatea auzokideen harremanetarako duen garrantziaz jabeturik, laster auzoko merkataritza sustatzeko plan bat aurkeztuko zaie tokiko merkatariei, eta parte hartzeko gonbidapena luzatuko zaie.

Kanpainak 15 eguneko iraupena izango du eta, egun horietan zehar, saltokietan bezeroei zenbakidun txartel bat emango zaie opari. Kanpaina bukatutakoan zozketa bat egingo da oparitutako txartelen zenbakiekin Larrotxene kultur etxean. Hango zuzendariak hartuko du zozketako sariak ateratzeko ardura.

Sariak Intxaurren Zaharreko komertzioetan trukatatu daitezkeen erosketa-bonoak izango dira.

INTXAURKIDE, PLAN PARA FOMENTAR EL PEQUEÑO COMERCIO LOCAL EN INTXAURRONDO

INTXAURKIDE es un plan para impulsar, potenciar y promover el pequeño comercio de Intxaurren Viejo.

La Asociación de Vecinos de Intxaurren Viejo (IZBE) considera que el pequeño comercio es de vital importancia para que la red social de un barrio sea fuerte. Conscientes de la importancia de contar con un barrio vivo para las relaciones vecinales, próximamente se les presentará a los comercios locales un plan de promoción comercial del barrio y se les invitará a participar.

La campaña tendrá una duración de 15 días y, durante esos días, se obsequiará a los clientes con una tarjeta numerada. Una vez finalizada la campaña, se realizará un sorteo entre los números de las tarjetas regaladas en el centro cultural. Será el director de allí el responsable de sacar los premios del sorteo.

Los premios serán bonos de compra canjeables por los comercios de Intxaurren Viejo.